

FUNTSEZKO JARDUERAK



1. Zein dira egin behar ditugun gauzarik garrantzitsuenak gure proiektuak funtziona dezan?

- Proiektuak funtziona dezan, produktu ezberdinak sortu behar ditugu, enpresari aurrera egiteko aukera emateko eta ditugun produktuak berriro behar ditugu bezeroen nahien arabera. Hori egiteko jarduera hauek burutu behar ditugu:
 - Produkzioa edo ekoizpena:
 - Energia elektrikoa sortzeko balio duten mekanismoak sortzean datza. Horretarako, materialak eraldatu behar dira nahi ditugun mekanismoak eskuratzeko.
 - Nagusiki, produktuak zer kantitatetan eta zer kalitatetan ekoizten ditugun izango dugu kontuan.
 - Arazoak konpontzea:
 - Gure enpresak bezeroei sortzen zaizkien dudak edo arazoak argitzeko betebeharra du, bezeroekiko harremana sustatzeko.
 - Horretarako, blog-a, email-a eta telefonoa erabiliko ditugu.
 - Plataforma edo Sareko jarduerak:
 - Produktuak internet bidez ezagutarazten ditugunez nagusiki, jarduera honek garrantzia handia du gure enpresan.
 - Horretarako, gure blog-a gestionatuko dugu, honen etengabeko mantenua beharko dugu eta gure blog-a eta gure produktuak promozionatuko ditugu publizitatea erabiliz.
- Jarduera hauek guztiak ezingo genituzke beste enpresa baten esku utzi, gure enpresaren muina osatzen dutelako eta know how-arekin (ezagutzarekin) lotura dutelako.